




Iraunkortasuna: definiziotik, kudeaketa-eskala egokira



Ira. 28 2020

Kod. W09-20

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2020

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Ira. 28 2020

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Iraunkortasuna gai konplexua eta dimentsio anitzekoa da. Elkarrizketa honetan lehen sektorearekin duen harremana aztertuko da.

Iraunkortasunaren definizioa gogoraraziz eta haren inguruan gogoeta eginez abiatuko du solasaldia Arantza Aldezabalek. Ana Galarragaren galderei erantzunez, klima-larrialdiaren testuinguruan duen konplexutasun multidimentsionalaz arituko da, eta lehen sektorearekin lotuko du, elikaduraren burujabetza eta ekonomia zirkularra aipatuz, besteak beste.

Azkenik, bere ustez kudeaketarako eskala egokia zein den azalduko du Aldezabalek, eta hori lortzeko gakoak ere aurreratuko ditu.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-09-28

18:00 - 19:00

“Mahai ingurua“

Ana Galarraga Aiestaran Elhuyarreko zientzia Komunikatzailea - Moderatzailea
Arantza Aldezabal Roteta EHUko Landareen Biologia eta Ekologia sailea - Biologia
doktorea

Irakasleak



Ana Galarraga Aiestaran

Elhuyarreko zientzia Komunikatzailea

Ana Galarraga Aiestaranek albaitaritza eta elikagaien zientzia eta teknologia ikasi zituen, baina zientziaren dibulgazioan egin du bere ibilbide profesionala, Elhuyarren barruan. Elhuyar aldizkariko erredaktorea izateaz gain, komunikabide ugarian kolaboratzen du. Zientzia gizarteratzeko beste ekimen batzuk ere antolatzen ditu, tartean, haur eta gazteei zuzendutakoak: parte-hartze saioak, sariketak, zuzeneko ekintzak, ipuinak, hitzaldiak... Bere lan guztietan, garrantzia berezia ematen die berdintasunari, euskarari eta elkarlanari.



Arantza Aldezabal Roteta

UPV/EHU

Biologian doktore da, eta irakasle- eta ikertzaile-lanetan dabil, EHUko Landareen Biologia eta Ekologia sailean. Bere ikerketetan, helburu nagusia da argitzea zein den klima-larrialdiaren eragileen eta biodibertsitatearen eta iraunkortasunaren arteko elkarrekintza, mendialdean fokua jarrita.

Matrikula prezioak

INSKRIPZIO

2020-09-28 ARTE

IZENA EMAN

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa